



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CPEIPS Bihotz Gaztea Ikastola HLBHIP

Ikastetxearen kodea:

14550

Data:

2023/05/08





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Bihotz Gaztea Ikastola kooperatiba mistoa da, gurasoak eta langile batzuk bazkideak dira. Herri Onura izaera duena, gizarte titularitatekoa, irabazi asmorik gabekoa, herrikoa eta herriaren ekimenetik sortu dena. Bihotz Gaztea Ikastola, Ikastolen Elkarteko parte da.

Bihotz Gaztea Ikastolak Santurtzira eta Ezkerraldera bideratzen du hezkuntza eskaintza. Ikastolako familien maila ekonomikoak bat egiten du Santurtzik duen indize ekonomikoarekin, ertainarekin alegia.

Misioa, Ikuskera eta Balioak

Mende Erdiko historian Santurtziko Ikastolak sustrai irmoak izan ditu beti gidari: geure balioak. Hasiera-hasieratik, ilusioz beteriko proiektu koherentea sortzea izan da gure xedea. Euskaltzaletasunean jarrera aktiboa dugu ardatza; konfiantzazko lan-giro baikorrean komunitateko partaide guztiek garatu ahal dituzte euren zereginak era autonomoan baina lankidetzara eta elkartasuna bermatuz. Horixe baita aberasten gaituen aniztasuna babesteko eta zaintzeko modurik eraginkorrena. Gure izaera zizelkatzen duten balio horiek erabat erroturik izateak, ezinbestez, esan nahi du berrikuntzari eta sormenari ateak zabalik dizkiegula. Hain zuzen ere, ezinbesteko tresna ditugu esparru orotan ekitatea eta bikaintasuna lortzearren.

Seguru asko, hainbat ikastetxek antzeko zutabeen inguruan eraikitzen dituzte beren hezkuntza-proiektua; agian, guk baino instalazio hobeak izan ditzakete; beharbada, gurea baino historia luzeagoa... auskalo! Hala ere, Bihotz Gaztea Ikastolak ez du inor bezalakoa izan nahi. Izaera propioa eta berezia du eta existituko ez balitz, norbaitek asmatuko behar izango luke.

Izaera horri misioa deitu diogu eta misio horrek ezaugarri zehatzak ditu. Bihotz Gaztea Ikastolak, herri-onurako kooperatibaren egituraz, hezkuntza euskalduna bermatzen die ikasleei, etorkizuneko biztanleak izango diren heinean, bizi garen gizartearekiko zein ingurumenarekiko konpromisoa arduraz garatuz.

Horretarako, gure 0-16 urte arteko ikasleei eskaintzen diegu konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza-proiektu berritzailea eta konpartitua -familiak eta profesionalak lagun-. Euskara eta euskal kulturaren sustapenetik hasita, ikasle guztiek beraiegi egokitutako kalitatezko irakaskuntza eleanitza eta integrala jasotzen dute, non euren garapen emozionala eta berdinen arteko bizikidetzara gakoak diren.

Ikastola handia osatzen dugu. Agian, ez zenbakitan baina bai berezi egiten gaituzten ezaugarritan: arreta, guretzat, lehentasuna da; aniztasuna zaintzeko arreta pertsonalizatua; ikastolaren hezkuntza-komunitatea osatu eta osatzen dugunon arteko komunikazioa etengabekoa da; Ikastolen Elkarrekin ematen digun babesaz, komunitate osoak hezten duela ahaztu ezinik, era kooperatiboan lan egiten dugu hobekuntzaren bila.

Zubi batean bezalaxe, zutoinek eta tirantek sendotasuna bermatzen diote egiturari. Horixe bera ematen digute gure balioek. Baina zubi guztiak ez dira berdinak; bakoitzak bere gorpuzkera du; gurean misioak ematen digu izateko arrazoia. Jakina, zubiak ere norabait joateko parada ematen digu; ikastolako ikuskera.

Datozen urteotan Bihotz Gaztea Ikastolak bere hezkuntza-proiektu berritzailea eta euskalduna, guztion partaidetzaz, elkarbizitza osasuntsuaren bidez, hurbildu nahi du bikaintasunera. Esparru eta eremu guztietan ikastola handitu nahi dugu jasangarritasunean oinarritzen den kudeaketa eraginkorra eginez eta gizartearen aitorpena jasoz. Funtsean, bere jardunaren iparrorratza denez, Ikastolak osatzen duen komunitatearentzat hazi-hezi bikotea bereizezina da; gu gara hazi eta hezi bazterrak lotzen dituen zubia.

Balioak:

EUSKAL ZALETASUNA: Euskararen erabilera gure lehentasuna da.

ILUSIOA. BAIKORTASUNA: Alde positiboak eta gure inguruko indarguneak kontuan hartzen ditugu.

LANKIDETZA eta ELKARTASUNA: lan kooperatiboa bai ikasleengan, bai langileengan bultzatzen dugu.

KONFIDANTZA. Ikasteko akatsak egitea ezinbestekoa da. Ez diogu akatsari beldur. Guretzako hau balio bat da. Okertzen bagara ez ditugu erruak kargatuko. Akatsak egiteko eskubidea dugu. Lankideengan, ikasleengan konfiantza dugu. Egingo dute!!

KOHERENTZIA. Estean duguna eta egiten duguna bat dator!!

EKITATE ETA BIKAINTRASUNA. Ikasle bakoitzarengandik onena lortzen saiatzen gara!!

ANIZTASUNA. Aniztasuna guretzako balio bat da. Bakoitzak indargune bat du, ezberdina, taldean aportatzen duena. BERRIKUNTZA ETA SORMENA. Hobetzeko bide ezberdinak bilatzen ditugu eta hauen eraginkortasuna konprobatzen dugu lan egiteko eta ikasteko modu eraginkorrek aurkitzeko.

Bihotz Gaztea Ikastola Santurtzin kokatuta dagoen bi lerrotako ikastola da eta 0 - 16 tarteko ikasleak hezten ditu.

Bihotz Gaztea Ikastola ikastolen mugimenduan oso aktiboa izan da betidanik. Horren ebidentziak honako hauek dira:

Material berrien sorreran gure irakasleen inplikazioa handia izan da. Gure irakasle batzuk parte hartu dute. Hala nola, Ainhoa Urzelai, EKiko matematikako materialgintzako kidea izan da. Geraxne Macías, Txanelako materialgintzan parte hartu egin zuen; Adirane Hornes, frantseseko Eleanitz proiektuaren partaidea; Javier Burgoa, LH 4. mailako EKiko materialgintzako kidea, Lourdes Jauregirekin batera. Azken honek oraindik EHIn jarraitzen du lanean gure langilea izan arren.

Material sorkuntzaz gain, gure ondorengo profesionalek EHik antolatutako prestakuntza-saioak bideratu dituzte: Aitziber Urzelai, Javi Burgoa, Adirane Hornes, Geraxne Macías, Ainhoa Urzelai eta Lourdes Jauregi.

Praktika onen trukaketetan Bihotz Gaztea ikastola beti prest agertzen da bere lan egiteko moduak eta proiektuak konpartitzeko edozein ikastola laguntzearen aldera.

- Kudeaketa aurreratuko taldekideak gara, gure praktikak beste ikastolekin konpartituz,
- HHn eta LH lehenengo zikloan egindako aldaketak beste ikastolekin partekatu ditugu. Azken urtean ikastola ezberdinen bisitak izan ditugu lan egiteko modu hauek partekatze.

DBHn garatzen ari garen koirakaskuntza ereduak beste ikastolekin partekatu dugu. Webinar bitartez gure proiektuaren azalpena bitan egitetik aparte gure ikastolarako bisitak antolatu ditugu klaseak ematen genituen bitartean gure praktika onak zabaltzeko.

- Ikastolen DBHko praktika onen jardunaldietan partaidea aktibo gara. Hauek dira jardunaldietan plazaratu ditugun gaiak:
 - IDU
 - Idazmenaren hobekuntza arloko irakasle guztion eskutik.
- HPIko partaidea gisa (hobekuntza pedagogiko iraunkorra), beste ikastolen aurrean diseinatutako bi jardunbideak azaldu ditugu.

Azkenik, EHIn sortzen ari diren materialean gure irakasle eta ikasleekin pilotajeetan parte hartzen ari gara, bai HHn zein LH 1. zikloan.

Bestalde, Santurtziko ikastola bakarra gara eta gure inguru soziolinguistiko honetan ikastolen presentzia ezinbestekoa da. Azken urtetan lan handia egiten ari gara euskara eta euskal kultura bultzatzeko herrian, Santurtzin ikastolan duen presentzia areagotuz. Modu honetan, urtero honako

ekitaldietan parte hartzen dugu: Santurtziko euskal astean, Euskararen egunean, Olentzeron, Agate Deunan, San Balendin maitasun bertso lehiaketan, Inauterietan, Berbalagunen, euskaraldian.. Jaiotze tasa jeitsi arren gure merkatu kuota azken urtetan %9,5tik %11,74 pasatzera lortu dugu. Guraso berri posibleekin egiten ditugun bisitetan Ikastolen elkartearen ereduak azaltzen diegu zehatz-mehatz IKASTOLA ereduak zabalduz. Urtero 60 bisita pertsonal baino gehiago egin ditugu.

Ikastolan, oraindik batxilerra izan ez arren, lan egiten ari gara etorkizun batean hau ipintzeko. Proiektua bideratzeko espazio gehiago behar dugu eta Udalarekin lanean ari gara hori lortu nahian. Epe laburrean lortzea zaila denez, oraingoz dugun eraikina egokitzen ari gara, baina eraikin berria egiteko asmoa bertan behera utzi gabe.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Bihotz gaztea ikastolak betidanik izan du ikas-irakaskuntza zein kudeaketa eta antolaketa esparruetan IKTak duten garrantziari erantzuteko prestutasuna. 2000. urtean hasita, IKT ikastola pilotoen taldean kide moduan aritu ginen eta gaur egun arte, gure azpiegitura momentuko neurri eta beharrei egokituia, eraginkorra eta eguneratua izateko helburua dugu.

Bihotz Gaztea Ikastolaren azpiegitura zehazteko orduan, gailuak, konektibitatea, plataforma eta zerbitzu digitalak eta mantenuaren antolaketa zehaztuko ditugu.

Gailuak

Ikasle, irakasle eta langileen gailuak.

Chromebook (475 inguru)

Ikasleak

LH 1, 2. eta 3. mailetan partekatuta dagoen 27 chromebook duen orga bat dago ikasleen esku.

LH 4, 5 eta 6. mailatan chromebook ratioa 1:1 da. Ikastolak ikasleen esku ekipoak jartzen ditu eta orgatan antolatuta daude.

Orga bakoitzak 27 chromebook ditu.

DBH 1º mailatik aurrera chromebook ratioa 1:1 izaten jarraitzen du baina ekipoen jabetza ikasleen eskuetara pasatzen da.

DBHn sortzen diren matxurei aurre egiteko, ikastolak chromebook sorta bat du, backup delakoak, apurtutako ekipoak konpontzen diren bitartean ordezkatzeko.

Lan bereziak egiteko, bideo ekoizpenak, programazio jarduerak etab. LH 4,5 eta 6. mailetarako windows peko eramangarriaz betetako orga bat dago. DBH etapan baita ere bigarren windows peko beste orga bat dago.

Irakasleak

Irakasle guztiek ikastolak jarritako chromebook bana dute beraien zereginak aurrera eramateko. Gutxi batzuk, eta bereziki proiektuen baitan, windows peko eramangarriak erabiltzen dituzte.

Idazkaritza, zuzendaritza eta mantenua.

Idazkaritza zein zuzendaritza esparruetan mahai gaineko windows ekipoak erabiltzen dituzte 1:1 ratioan. Mantenu orokorreko arduradunak egin beharreko lanaren arabera windows peko mahai-gainak edo chromebook bat erabiltzen dituzte.

Geletako ekipamendua

Nahiz eta urteetan gela bakoitzeko arbel digitala eta proiektore bana izan, duela bi urte eta gelak berantolatzeke obrak egin eta gero, LH gela bakoitzeko, 3. mailatik hasita, bi telebista handi daude eta edukiak hdmi kablez zein chromecast bitartez hedatzen dira.

LH 1 eta 2. maileran gurgildun Orbys pantalla taktikak daude beharren arabera pantaila edo arbela moduan erabiliak izateko.

DBHn Gela bakoitzeko telebista handi bat dago.

Konektibitatea

Internetarako sarbidea zuntz optiko simetrikoa duten bi konexioen bitartez egiten dugu. Konexio bakoitza hornitzaile ezberdin batekin hartuta dago egonkortasuna ziurtatzeko asmoz.

Sare konexioak fortinet firewall batera lotuak daude eta barne sarea bertatik lotzen da. Barne sarea bi ataletan banatuta dago, kabledun sarea eta wifi bitarteko sarea.

Wifi sarea, ruckus kontroladora eta antenekin osatuta dago eta azpi sareetan antolatuta dago.

zerbitzariak eta Inprimagailuak sarera kable bitarteko konexioak dituzte.

Irakasleen chromebookak inprimagailuetara on-line aplikazio baten bitartez lotuak daude.

Plataforma eta zerbitzu digitalak

Windows peko mahai gaineko ekipoak sarean kudeatzeko eta administraritza aplikazioak martxan izateko windows server batzuk martxan ditugu. bat ezik beste guztiak VMWare makina birtualak dira eta beraien eta edukien seguratasun kopia automatikoak ezarrita daude. Babes kopiak, lokal moduan eta "hodeian" egiten dira.

Irakasle, ikasle eta orokorrean ikastolako kide guztiak google workspace domeinu batek eskeintzen dituen baliabide eta tresnak erabiltzen ditugu. adb. Posta, drive eta tresna ofimatikoak.

Tresna guzti hauek, erabiltzaileen baimenak eta chromebookak administrari kontsola batetik kudeatuak daude adin eta beharren arabera taldekatuak.

Drive atalean dauden datuen seguratsun kopia bikoitza egiten dugu. Alde batetik spanning backup zerbitzuaren bitartez eta bestalde google berak eskaintzen duen vault delako atalean.

Gestio aplikazioak

Alexia kudeaketa akademikoa, filiazio eta abarreko zerbitzuetarako.

Sage, administrazio lanetarako

Hezkuntza aplikazioak

Lehen aipatutako google workspace domeinuak eskeintzen duen google classroom LHN erabiltzen da eta honekin batera eta ikas liburuak pantailaratzeko Blinklearning plataforma.

DBHN saioka moodle gunea erabiltzen da ikasleen eguneroko jarduerak egiteko eta ebaluatzeko.

Mantenua

Ikastolan IKT arduradunaren figura dugu. Gure kasuan IKT dinamizatzailerak eta IKT mantenu teknikariaren profilak uztartzen dituenak. Ikastolen elkarteko eraduarekin bat egiteko eta goi-mailako mantenua aurrera ateratzeko kanpoko kontsultoria batkontratatu dago.

Urtean zehar aurreikusten diren hainbat lan eta ekintza IKT urteko plan batean islatuta daude mantenu prebentiboa zein zuzentzailea antolatuta izateko.

Mantenu zuzentzailea kudeatzeko ikastolako intranetean formulario batzuk daude konponketa eskaerak luzatzeko eta hoi jarraipena egiteko.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitze eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturen eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, eragin hori emakumeengan eta gizonengan desberdina dela eta teknologiaren, pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etikoak ere behar du, ikasleen konpetentzia digitalean zein irakaskuntzako konpetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorriz.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleak irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten. Horregatik, ikastolatan egiten diren hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarritzko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik duen zentzua.

Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleen eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrez jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du", hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era

berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoeretarako Kontingentzia Planak ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala bermatuko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetentzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitalki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan, zuzendaritza-proiektuan eta urteko programazio orokorrean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren, Zuzendaritza Proiektuaren eta Urteko Programazio Orokorraren (PGA) parte den tresna izango da.

Badira urteak gure ikastola IKT kontuetan murgilduta egon dela. Izan ere, 1996an informatika gela sortu genuen eta internetarako sarbidea instalatu genuen. Gainera, 1999an Ikastolen Elkarateak eratutako digitalizazio IKT proiektuan piloto moduan izendatua izan zen.

Betidanik saiatu izan gara gai honetan punta-puntako erabakiak hartzen, bai azpiegitura kontuetan: sareak, zerbitzariak, ekipoa etab. bai eta eguneroko irakaskuntza prozesuetan baliabide hauen erabilpena sustatzen ere.

Azkenengo urtetan gure indarguneari eutsiz jarraitu izan dugu lerro hau bultzatzen.

Gure ikastolan konfinamendu garaia asko bultzatu du IKT erabilpena. LHn classroom erabili genuen eta DBHn xtend, alexia classroomeko materialak erabiliz. Konfinamendua hasi eta hurrengo egunean klaseak eman genituen modu sinkronoan. Ordutegiak mantendu genituen eta ikasleek klaseak on line hartzeko aukera izan zuten. Google meet bitartez bideratu genuen. Bai HHn, zein LHn gurasoen laguntzarekin lagundu genituen ikasleak. Garai horretan ezarritako zenbait ohitura, hala nola bilerak google meet bitartez bideratzea, mantendu izan da.

Bestalde, ikasleen konpetentzia digitala garatzeko aurretik bageunden plan zehatz bat aurrera eramaten. LHtik pentsamendu konputazionala garatzeko Beebotak erabiltzen ditugu lehenengo mailetan. Aurrera joan ahala zenbait ikasgaietan jarduerak chromebookak erabiliz bideratzen ditugu. Hauei erantzuna emateko ikastolan karroak ditugu. DBHn ikasle bakoitzak bere chromebooka du. Testu liburuak beharrezko materialak hodeian daude. Honetaz gain, bai LHn zein DBHn indartu egiten dugu teknologiaren sakonketa jarduera ezberdinen bitartez. LHn plastika ikasgaiaren preteknologiako edukiekin eta FLN parte hartuz. Txapelketa honetan LH4. mailako ikasle guztiek hartzen dute parte. DBHn STEAM proiektuaren barruan zenbait jardueretan parte hartzen dugu: Yes ICT, Embryo, FLL, zientzietako olinpiadetan, zientzia azokan etab. Hauetan IKT baliabideen erabilpenak pisu handia hartzen du.

19-20 ikasturtean STEAM sariak labela lortu genuen DBHn STEAM bitartez landutako helburuengatik:

Genero-ikuspegia aintzat hartzea.

STEAM hezkuntzaren jakintzagaien zeharkakotasuna.

Oinarrizko gaitasunak garatzea.

Erronkara bideratzea. Metodologia aktiboak eta elkarlanekoak.

Teknologia digitalen erabilera. Drive egituren bitarteko komunikazioa google docs erabiliz elkarlanean aritzeko, sketch up maketak digitalki egiteko 3D inpresora maketak egiteko.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOLOGIKO BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak hezteko baita irakasleentzako ere zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikrokultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzepzioa.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big datak, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoaren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiaren ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hezkuntzen i(r)ahezkuntzaren eta teknologiaren arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta. Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculum inplementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu “IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan” proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkartek izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure zuzendaritzarekin eta IKT arduradunarekin elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaria eta IKT arduraduna izendatu dira. Pertsona hauek mentoreak eskeinitako informazioa zuzendaritza talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izango den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionean, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskainitako laguntza ete ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia:

Urrian zehar eta "Selfie for School" tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen islada jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuta.

2 - Analisi:

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekingo zaio. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratzuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealak izan beharko dute.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta egongo da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da.

Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen.

Zehazki gure plan estrategikoaren A3.4 ildo estrategikoan STEMak bultzatzea da eta P1. Prestakuntza plana aurrera eraman ildoak digitalizazio formazioa jasotzen du. Plan Estrategiko hau urteko planean gatu egiten dugu eta etapa bakoitzak zehaztu egiten ditu SMART helburuak lerro hauek garatzeko.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola artezkaritzaren berrikuspena.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Etapako bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

Etapako Zuzendaritza eta ikasleen adostasunak indargune eta ahulguneetan

Indarguneetan Esparru gehienetan ikasle, irakasle eta zuzendaritzak koinziditzen dugu arloa indargune bezala kontsideratzean, bietan izan ezik, ebaluazio jarduketetan, ikasleek 2,6 balorazioa ematen dutela LHn eta pedagogia, ikasgelan aplikatzea zuzendaritzak 2,4 ematen diola. Beste guztietan emaitza 3 baino handiagoa da arloen laburpenean.

Arloko aztertzerakoan:

Lidergoia atalean adierazle guztiak, bat izan ezik 3tik gora daude. Aipagarrienak honako hau da:

A3: Irakaskuntzako modalitate berriak batzbesteko balioa 4,2 delarik.

Kolaborazioa eta sareak atalean batzbesteko balorazioa 3tik gora dago. Guztien balorazioak nahiko antzerakoak dira. Balorazio altuena duena honako adierazlea izanik:

Elkarlana. 3,8ko batzbesteko balorazioarekin.

